

Bizkaiko zorra berdintzeko diruak inbertsioetarako izan beharko lukeela dio Arabako PPK

■ Donostiako Udalak 500 milioi gutxiago jasoko ditu

Efe / Gasteiz

BIZKAIKO Aldundiko zorra berdintzeko Arabak eta Gipuzkoak jarriko dituzten 5.314 milioi pezete EAEn inbertsio berriak egiteko izan beharko luketela esan du Ramon Rabanera Arabako PPKo presidentea. Bizkaiko iazko aurrekontuen desoreka nola sortu zen argitzeko ere eskatu du Arabako PP alderdiko buruak.

Herenegun Eusko Finantza Kontseiluak (EFK) akordioa erdietsi zuen, eta Bizkaian iazko kontuetan gelditu den zorra ordaintzeko gainontzeko aldundiek ere dirua jarriko zutela erabaki zuten. PPKoen ustez, baina, akordio hori «eta baita Aportazioen Legea ere, EAJK defenditzen duen legea, ogasunen arteko leialtasun-ean oinarritzen da, eta oraingoan ez da leialtasun hori errespetatu». Rabaneraren ustez, Bizkaiko Ogasuneko desoreka «oso berezia» izan da, «hasieran emaitza ikaragarriak eman zituzten, eta, fundamentuzko arrazoirik eman gabe, pixkanaka husten joan dira emaitza horiek». Bizkaiko aurrekontuetako zuloa «kudeaketa txarraren ondorio» izan litekeela uste dute Arabako PPKoek, eta horregatik Felix Ormazabal, Arabako ahal-dun nagusiari, Aportazioaren Legearen gaineko azalpenak eskatu dizkiote.

Donostiako alkate Odon Elorzak esan duenez, EFK-ko Elkartasun Fondaok jarriko dituen bost mila milioi horiek direla-eta Udalak ezingo du bostehun milioi pezeta jaso. X



Gatikako Udala

Gatikako Udalak, 1997.eko urtarrilaren 20an 12 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hurrengo iragarki hau argitaratu zuen:

IRAGARKIA

Gatikako Udalak 1996.eko azaroaren 28an ospatutako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen:

1.- Toki Errejimenerako Oinarriak araupetzeko Apirilaren 2.eko 85/7 Legearen 47.3 atalean aurrikusitako gehiengoaz, Butroi eta bere ingurukoari dagokion paisaia babeserako Egitamu Bezeziari lehenengo onarpena ematea.

2.- Jendaurreko-Argibidea hila-beteko baten epea zabaltzea, beharrezkoak diren iragarkiak, egunkari batean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean ezarpenaren bidez, zeinean afektatutako jo direnak beraien interesen alde bidezko deritzen adieraz ditzaten, dogozkion Teknikari-Agiri eta Arduralaritzako Espedientearen beren eskuetan jarri direlarik.

Gatikan, 1996.eko abenduak 20. ALKATEAK.

Porlana bezain tinko


Olaztiko (Nafarroa) Portlandeko langileek hemezortzi egun daramatzate greban

○ tsailaren 2an greba hasi zutenean Olaztiko Cementos Portlandeko 150 langileek bazekiten luzerako izango zela. Denborak arrazoia eman die. Zuzendaritzarekin pare bat bilera egin badituzte ere, ez dute akordiorik lortu lan hitzarmenaren gainean, eta ELA sindikatua- ren laguntzaz tentu onez eusten dioten pultsuari.

Ana Unanue / Olazti

«HAU pulsu bat da, eta ezin dugu galdu. Grebak irabazteko egiten dira, edo ez dira egiten». Epifanio Marini, Olaztiko Cementos Portlandeko langileen ordezkariari, ez zaio nekea nabari oraindik. Atzo ere eguna argitu baino lehen, goizeko bostetan, abiatu zen Arrigorriagako Rezolara, sarreraren piketea egitera. Goizero Olaztiko 40 bat langile joaten dira, hiru taldetan antolatuta, Arrigorriaga, Añorga eta Lemoako zementu fabriketara. Piketeek helburu garbia dute: Portlanden bezeroek ez dezatela porlana ekarri Bizkaia edo Gipuzkoatik. Sakanakoek ez dute beti lortzen; badakite gauz kamioikada batzuk atera izan dituztela, eta Itoizko urtegia erakitze porlana Palentziatik ekartzen dutela, baina horregatik ez dute etsi. Kanpotik zerbait ekarri arren, Portlandek ezin ditu osatu Olaztiko egunero ateratzen zituen 3.000 tonak.

Kanpora joaten ez diren langileak Olaztiko fabrikako sarrerako zubian elkartzen dira. Lantegia erabat geldirik dagoenez, horiek ez dute lan handirik kamioien joan-etorriak kontrolatzen. Hala ere, egunero biltzen dira han, goizeko zortzietatik arratsaldeko zortziak arte. Txosna bat jarri dute, barrikada eta barra aldi berean, eta haren inguruan ematen dituzte orduak. Hala zeuden atzo eguerdian, Guardia Zibilak gertutik zaintzen zituela -grebaren lehen egunean, errepidea moztu zutenean, agertu ziren guardia zibilak eta oraindik ez dute aldegin-. Haizeak gogor



Gipuzkoako eta Bizkaiko porlan lantegietako piketeetara joaten ez diren grebalariek egunean hamabi ordu ematen dituzte Olaztiko lantegiaren atarian.

EGUNKARIA

jozten zuela eta, ez zuten txosna zabaldtu. Aspertuta ziruditen, baina beraiek ezetz, morala goian dutela eta luzarokan, «irabazi arte», agoantatzeko animoz daudela. Gerra psikologikoa oso inportantea dela, eta aspertu plantak «etsaia nahasteko» egiten dituztela zioten, txantxetan.

Otsailaren 2tik ● Otsailaren 2an greba hasi zutenean bazekiten luzerako izango zela. Portland FCC talde indartsuaren menpe dago duela bost urtetik, eta langileek bazekiten zuzendaritzak ere fuerteko jokatu zuela. Horregatik eskatu zioten laguntza ELAri -Portlandeko langile batzordeko kide guztiak eta 150 langileetatik 100 inguru sindikatu horretakoak dira-, eta sindikatu portatzen ari da. Grebak irauten duen bitartean, afiliatu bakoitzak 158.000 pezeta jasoko ditu erresistentzia kutxatik, eta beharrezkoa izanez gero horiek prest daude dirua banatzeko. «Dirua ez da problema. Haiek

fuerte daudela badiote, gu gehiago, edozeri aurre egiteko prest. Hordagoa botata dago, eta guk eutsi egingo diogu», dio Marinek.

Azken egunotan pare bat bilera egin dituzte zuzendaritzarekin, baina ez dute hurbilketarik lortu. Desadostasun nagusiak kontratazioak eta soldata igoera dira. Langileek beste zortzi behargin har ditzaten nahi dute, azken urteotako enplegu galera orekatzearren. Portlandek duela hamar urte baino 50 langile gutxiago ditu gaur egun; langileak behar dituztenean, azpikontratuak egiten dituzte, baldintza kaskarraoetan. Orain 30 langile dituzte azpikontratuekin, eta langile batzordeak planto egin du. Enpresak 8.330 milioi pezeta irabazi zituen iaz, eta etekin horiekin enplegua sortzeko eta soldata %4 igotzeko egoeran dagoela uste dute langileek.

Zuzendaritzak, berriz, %2,3ko igoera eta salmenten araberako plus bat eskaini die. Marinek dienez, «zuzendaritzaren eskaintza

diru aldetik gurearen antzekoa da, baina kontua ez da hori, filosofia baizik. Guk igoera finkoa eskatzen dugu eta haiek aldakorra, salmenten araberakoa. Guk ez dugu salmenten menpe egon nahi. Azken urteak onak izan dira, baina batek daki zer gertatuko den datorren urtean. Itoiz bukatzen badute, adibidez, salmentak behera joan daitezke, eta zer egingo dugu guk orduan?».

Olaztikoek diotenez, bada alderik Portlandeko aurreko zuzendaritzaren eta gaur egun-goaren artean: «Lehen bertakoak ziren, eta arazoak konpontzeko animoz etortzen ziren negoziatza- ra. Orain, berriz, Madrildik etortzen diren horiek ez dira ezertaz enteratzen, eta horrela gabilta». Rezolan atzo hastekoak ziren lan hitzarmenaren negoziaketa, eta han ere arazo berbera izango dutela uste dute Olaztikoek. «Ea han ere greba hasten duten, hartara ez dugu guk joan beharko piketeak egitera», zioen barrezka Marinek. X

Epaitegiak atzera bota du ELAk eta LABek Bizkaiko metaleko hitzarmenagatik egindako salaketa

■ Ontzat jo du patronalak, CCOO eta UGT sindikatuek 1997-2000 urteetarako sinaturikoa

Joseba Aiarza / Bilbo

LAN Kontuen Epaitegiak FVEM (Bizkaiko Metal Enpresen Federazioa) patronalaren eta CCOO-UGT sindikatuen alde egin du Bizkaiko metaleko 1997-2000 urteetarako lan hitzarmenaren auzian, ELAk eta LABek aurkezturiko salaketa atzera bota baitu. Sindikatu abertzaleek ez zuten hitzarmen hori sinatu, gehiengo sindikala izanik, eta aurtengo

ekitaldirako beste hitzarmen bat sinatzera behartzeko jo zuten auzitegira.

Epaitegiaren arabera, berriz, ELAk eta LABek «parte hartu zuten 1997-2000rako hitzarmeneko negoziatioetan, eta negoziatio hauetan lege onez jardun zuten alde guztiak». Sindikatu horiek azkenean hitzarmena sinatu ez bazuten ere, «hori sindikatu horien erabaki librea izan zen», gehitu du epaiak.

ELA-LABek epaia errekurritu egingo dutela iragarri dute.

Epaiak frogatutzat eman du Bizkaiko metalgintzako enpresa gehientsuenek, %97k hain zuten ere, sinatutako hitzarmena betetzen ari direla, eta horregatik hitzarmena «babestu beharrekoa da».

FVEMren bozeramaileek azpimarratu dutenez, epaiak arrazoia eman dio elkarte patronalari auzi honetan, eta ELA eta LAB sindi-

katuak erabakia hartzea bultzatzen ditu: edo bat egiten dute indarrean dagoen hitzarmenarekin, edo 2000. urtera arte hitzarmeneko mahai iraunkorretik kanpo geldituko dira.

Bizkaiko metaleko elkarteak lehenengo aukera hobetsi du, hain zuten ere, sindikatu abertzaleek sektoreko hitzarmenarekin bat egin dezaten, «mahai iraunkorretik kanpo gelditzerik nahi ez genukelako». X